



Zuhotza
evakoro alkatzea
deba

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 218. alea - 2017ko maiatza



**Badator
Antzerki Astearen
31. edizioa**



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

SO URTE

BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pinfko bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

kutxabank
hemen
eta orain **k**

Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roka Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

sasoiiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14
943 19 24 42
sasoi@hotmail.com

Bordatxo
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aftariak: 20:00 / 23:00

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Akordatzen al zarete?”, “Urte askotarako, Joseba!”, “Reusen”...

08

KRONIKAK

M7ko herri galdeketa; Deba-Reus arteko topaketaren kronika Bartzelonatik

10

ANTZERKI ASTEA

Dena prest aurtengo Antzerki Asteari hasiera emateko. Ikus egitaraua

12

LABURRAK

Parte-hartze handia triatlloan, Tene Mujika bekaren emaitza aurkeztu dute...

14

B. GAZTEA

Ikasbidaian Alemanian, janariari buruzko inkesta, denbora-pasak...

Euskal Jaia prestatzeko bilera maiatzaren 30ean

Datorren irailaren 30ean ospatuko dugu Euskal Jai eguna Deban. Urruti samar ikusten da oraindik ere hitzordua eta egitaraua zehaztu gabe dago, baina Zuhatza Euskara Elkartek lehen bilera baterako deialdia egin du maiatzaren 30erako (asteartea), 19:00etan elkartearen bulegoan.

Egitaraua borobildu eta antolaketa lanetarako beharko den bolondres sarea osatzea izango da batzarraren helburu

nagusia. Besteak beste, Euskal Jaia iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa ere izango da hizpide bileran.

Jaialdirako ekarpenak egin edo lagundu nahi duen orori luzatu nahi dio Zuhatzak bileran parte hartzeko gonbitea; euskara elkarteko bazkideei, nola ez, eta baita gainontzeko herritarrei ere. Izan ere, guztion laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izango baita aurten ere! Zatoz zu ere!

Zuhatza Euskara Elkarte



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
euskara elkarte deba

LAGUNTZAILEAK



Debaiko Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietia, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83


Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Akordatzan al zarete?

Apirileko igande goiz hartan, meza ondoren, katekesiko lokaletara joan eta ilarran jartzen ginenean Alamedarako bidean?

Eskuz edo zinta beltzarekin egindako gure zenbakia aurrean ipini, eta gure txanda noiz izango zain urduritasunak gure barrenak nola mugitzen zituen...

Akordatzan al zarete korrikaldia bukatu eta gero kioskora gure dominaren bila joaten ginenean? Hura poza! Inportanteak sentitzen ginen. Lehenengoak bere kopa jaso eta etxean non jarriko zuen pentsatzen zuen. Eguneko heroia zen.

3. mailako neskek, 4. mailako mutilak... Katekistak eta haien laguntzaileak guri begira. Gurasoak ibilbide bazterretan, Allika argazki kamerarekin guri argazkiak ateratzeko prest... Badira urteak, bai...

Dezente! Edo ez hainbeste?

Dominek esan ziguten zenbat alditan egin izan den kros hau, Katekesiko Krosa.

Katekistek lekukoa eman zigutenean Anes Arrinda izan genuen gogoan, bera izan baitzen ekimen honen sortzailea, eta dominek esandakoaren arabera 45 aldiz egin da kros hau Alamedako gunean.

Guk jarraipena eman diogu kros honi eta, aldaketa batzuk egin baditugu ere, gure herriko haur eta gazteek guk bizi izandako zirrara horiek senti ditzaten nahi izan dugu. Badira ia 50 aldi, irteera gunetik metarako bidean gure oinek ziztu bizian eraman gaituztenak, gure kidea aurreratu edo harrapatu nahian, eta gero kioskoko eskailera horiek igota eskuetan zerbait dakargula ohorez jaitxi ditugunak. Orain

Allika ez da argazkilari bakarra, ez daude nesken eta mutilen talde soilak, ez dugu igandeko goizeko meza ondoren korrika egiten, ez dago ez dominarik eta ez koparik, baina bai zirrara eta emozio berdintsuak. Eta umeak, horiek baitira gure ardatz guneak.

Guk egin dugu bidearen zatitxo bat eta dagoeneko uste dugu nahikoa dugula. Gustatuko litzaiguke Anes Arrindaren lekukoa 50.ean beste norbaiten esku uztea. Mende erdia egingo duen ekintza honek jarrai dezan, lekukoa kiosko gunean uzten dugu. Norbait hartzeko prest? Gure herriko umeek une hauetaz akordatzeko aukera izan dezaten...

Anes Arrinda Haur Krosaren antolaketa taldea

Kolore Anitz Eguna batetik, udalekuak bestetik... Mila esker gudan jarritako konfiantzagatik!



Urtero bezala, aurten ere ospatu dugu Kolore Anitz Eguna. Maiatzaren 6an izan zen, hain zuzen ere. Herriari aisialdiaz gozatzeko aukera ezberdinak ematea da gure helburu nagusia eta urteetan zehar ekintza ezberdinak burutu izan ditugu: haur eta gurasoen arteko jolasak, gaztetxoagoentzat presatutako ekintzak eta gauean musika kontzertuak Gaztetxean. Aurten, arratsaldea bi zatitan banatu genuen. Lehen zatian, HHko haurrentzako puzgarria atera genuen plazara, eta plaza zaharrean, iturriaren bueltan, herriko txiki-entzatzat Gran Prix egin genuen. Bigarren zatia herriko gaztetxoei eskainia izan zen, eta haiekin ere Gran Prix egin genuen. Proba ezberdinak egiteko jolasa izan zen eta haurrek zein gazte-

txoek primeran pasa zutelakoan gaude. Eguraldia ere aldeko izan genuen eta egun borobila izan zen Kolore Anitz Aisialdi taldearentzat, dena bikain irten baitzen!

Gauean, 17 urtetik gorakoentzat, Gaztetxean musika eta giro ona izan genuen. Musikariek eta aisialdi taldeko partaideek elkarrekin afaldu ostean ekin genien kontzertuei. Erromeria batekin eman genion hasiera gauari, Joxpa taldearen eskutik. Ondoren, Iruñetik etorria, gaztetxe osoa dantzan jarri zuen Dj Jotatxo izan genuen gure artean.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu egun hau posible egin zenuten guztioi: parte-hartzaile guztiei, haiek gabe ezin baita halako egun zoragarri bat antola-

tu, musikariei, Debako Udalari, Gazte Asanbladari, eta Lander Fernandezi, arratsalde osoan gurekin egon baitzen musika ekipoarekin eta soinu lanetan laguntzen. Eta nola ez, zorionak Kolore Anitz Aisialdiko begirale taldeari ere, lan bikaina egin baitzuen eguna borobila izan zedin!

Bukatzeko, udalekuen izen-ematea arrakastatsua izaten ari dela aipatu nahi dizuegu. Mila esker beste urte batez gure ametsak posible egiten dituzuenoi eta gudan jarritako konfiantzagatik!

Laster arte!

Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldea

Urte askotarako, Joseba!



Zo-ri-o-nak zu-ri...

1, 2, 3...
hasi zinen
10, 15, 20...
pasa ziren
25, 28, 33...
zein erraz esaten den
34, 35...
zein erraz idazten den
baina
zeuk bakarrik dakizu
zein gogorra den
36
urte herritik kanpora.

Aspaldi
bete zenuen zure zigorra,
2013ko ekainaren 11n
osatu zenituen 3/4ak,
dena da zilegi
4 urte gehiago
dena da posible
1460 egun.

Hemen ez dira
GIZA ESKUBIDEAK errespetatzen,
batzuek ez dute
KONPONBIDEA behar,
ez dute **PAKEA** nahi.

Ekainaren 19an
urte betetze eguna duzu,
ZORIONAK, Galarraga.
URTE ASKOTARAKO, Joseba.
BESARKADA BAT, Potzu.

Hik bultza gogor hortikan
ta bultza guk hemendikan
ea behingoz erortzen den
eta
orduan
ez diagu beharko
horman argazkirikan.

Debako Sare



Reusen

*Bona tarda, Reustarrak
Kaixo, Lagun minak!
Pozik etorri gera
etxetik, Jakina!
Herriko jende apala,
Rockero Tarinak,
Denok batera esanez:
"Visca Catalunya!"*

*Apirilak zortzian
Etxean geratzeko
Arrazoiak baziran
Asko eta asko:
Desarma Baionan,
Garai berriari so
Eta Korrika Iruñian
Ttipi-Ttapa iteko.*

*Halere Reus bertan
Badugu elkarlana,
Helburu berezi bat
Lortu behar deguna.
Besarkadak emanez
pasako da eguna
ta Deba-Reus arteko
Bien Anaitasuna.*

Joxeluis Aldasoro

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Euskaldun izatea zein nekeza den



Ina Oartzabal Errasti
Zuhatza Euskara Elkarte
lehendakari ohia

Nire gurasoak ere aspaldi konturatu ziren, beste asko bezala, Debako herriak akats bat behintzat bazuela: nola zitekeen hain euskalduna zen herri batean, gehien-go batek espainolez bizitzeko hautua egitea? "(...) eta akats bat agertzekotan ezin nezake huts egin. O, debatarrok, Euskaraz denok pixka bat gehiago hitz egin...(J.M. Etxezarreta)". Zer behartzen gaitu gure gurasoek emandakoa baztertzera? Zer gertatu zen XX. mendean zehar, Deban euskararen erabilpena hain urria izateko? Arrazoi ezberdinen artean, nik bat azpimarratuko nuke: euskararen subordinazioa (hizkuntza hegemonikoaren boterea eta inposaketa).

XXI. mendean gehienok pentsatzen dugu ez litzatekeela inongo mendekotasun harremanik egon beharko; gehienok berdintasunaren alde gaudela dirudi. Baina zer-nolako berdintasuna? Hitz hutsean edo itxurakerian gelditzen den berdintasuna? Genero berdintasunarekin gertatzen den bezalakoa?...

Guztiok txikitatib barneratzen dugu, hizkuntza nagusiaren -gizon hegemonikoaren- garrantzia (zentraltasuna, derri-gortasuna, agintea,...), eta nola ez, hizkuntza minorizatuaren -mendeko emakumearen- ahultasuna eta subordinazioa. Jaiotzen garen unetik, kontzienteki edo ez, jasotzen dugu zer den inportantea eta zer mendekoa. Desberdintasuna oinarri duen testuinguru batean bizi gara. Eta

era pasiboan edo aktiboan, genero *binarismoa* (A. Barquin) ez ezik *binarismo* linguistikoa ere onartzen jarraitzen dugu. Horrela, botere harreman desorekatua eta ezberdina mantentzen laguntzen dugu, betikotzen dugu.

Hizkuntzari dagokionez, botererik gabe -norbanakoarena eta instituzionala- ez dago euskararen minorizazio eta subordinazio egoera gainditerik, eta hau gainditu gabe ez dago berdintasunik talde linguistikoen artean. Benetako berdintasuna lortu ahal izateko, gehienok, errespetuan oinarritutako parekotasuna bilatu beharko genuke.

Hizkuntza bat, bere berezko lurraldean, ezarri egiten da, hedatu, erabili, baina sekula ez da inposatzen. "(...) *Nork inposatzen du hizkuntza? Ez dakienak...*(R. Ordorika)" edo gutxienez, ulertzen ere ez duenak. Euskararen lurraldean, gutxienez euskararen ezagutzak, garrantzizkoa eta ezinbestekoa izan beharko luke. Euskarak, bere espazio naturalean, euskararen herrian (zer esanik ez ofiziala den herrialdeetan) eta hainbeste urte pasa ondoren, hizkuntzari dagozkion ia funtzio gehienak beteta beharko lituzke. Ez gehiago, ez gutxiago.

Nire aldetik, hor gure alboan, urte hauetan guztietan eman duzun laguntza azpimarratzeaz gain, Deban euskararen alde eskaini duzun ale txikienarengatik ere eskerrak eman nahi dizkizut.

Jakitun, euskara edukitze hutsak ez gaituela euskaldun egiten, bertako hizkuntzaren funtzio horiek guztiak lortu nahian, urtetan hor gabiltza lanean euskaltzaleok. Hor gabiltza hizkuntza hegemonikoei (espainola eta frantsesari) aurre egiten; gure herrian, euskararen herrian, euskarari zor zaion errespetua eta dago-kion duintasuna eman nahian. "(...) *Inork ez zidan esan Euskaldun izatea zein nekeza den. Hobe nuela hautatzea munduko hiritar izatea...*(R. Ordorika)".

Jadanik hogeitaz urte izango dira debar

talde batek, Debako euskararen egoeraz kezkatutik, Zuhatza Euskara Elkarte sortu genuela. Handik urte batera *Berriketan* herri aldizkaria etorri zen, eta urteak joan dira ohiturak berreskuratzen laguntzen, kultur emanaldi, hitzaldi, edo mintzapraktika taldeak osatzen. Eta batzuetan nekeza izan arren, azken gogo-eta prozesuan garbi gelditu zen bezala, ilusioz beterik eta orain arte bezala, hor jarraituko dugu euskara erabiltzen eta bere hedapenean eragiten. "(...) *Ez onena agian, ez ederrena agian, zaharregia, txikiegia agian...*(K. Uribe)".

Zuhatza Euskara Elkarte adinez nagusi da jada, baina bere heldutasuna lortzeko (euskararen erabilpen normalizatura eta errespetuzko berdintasunera iristeko) asko falta zaio. Oraindik bide luzea daukagu egiteko. Nire aldetik, hor gure alboan, urte hauetan guztietan eman duzun laguntza azpimarratzeaz gain, Deban euskararen alde eskaini duzun ale txikienarengatik ere eskerrak eman nahi dizkizut. Nik, bertako arbasoek mendeetan egin zuten bezala, Debarreneko beste herri batean ere, duintasun osoz "*Lehen hitza euskaraz!*" egiten jarraituko dut. "*Egiatzko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria* (K. Mitxelena)".

Euskaltzaleon konpromiso eta hazi txikiekin, uzta handiak jaso ditzakegu. Euskaldun izatearen harrotasun pixka bat gehiagorekin eta "*Euskaraz denok pixka bat gehiago hitz eginez*", euskararen lurraldera etorri direnen edota gurasoek emandakoa baztertu dutenen kontzientzietan ere zerbait gehiago eragin ahal izango dugu. Ea horrela, euskara normaltasun osoz erabiltzeko gai garen eta euskaldunon eskubide linguistikoa guzti-guztiak lortzen ditugun.

Bukatzeko, lerro hauek aprobetxatu nahi ditut, Lukax Dorransoro eta Iñaki Elosua bezalako euskaltzale langile fin beteranoei, Euskal Herriko eta euskaldunon ondare garrantzitsuenaren alde egin duten guztiagatik, nire miresmena azaltzeko. Ea egunen batean Debako herriak merezi duten esker ona ematen dien.

"(...) *Min eman badizut, ez hartu gogoa, ez dut inoren kalte izan nahi...*(R. Ordorika)".



EIDER ZULAIKA

Iaz ere San Juan zen, eta aurten ere San Juan Bautista

Eguraldi zoragarria daukagu, eskolako azken eguna da gaur eta gure motxila txikia topera beteta dakargu etxera bueltan. Ez digu batere ardura bizkar gainean daramagun pisu andanak, irribarre handi bat dugu aurpegian marrazturik. Eta ahoz aho ez dugu beste gauzarik: gaur iluntzean izango den San Juan sua!!

Gure lan-urtearen amaiera eta oporren hasiera adierazten digu San Juan suak! Eskolako liburuak botatzen ditugu sutara, eta ur-pistolekin jolasten dugu suaren inguruan, suzko zezena herritik bueltaka dabilen bitartean. Batzuk herriko plazan geratzen gara eta beste batzuk Artzabalera arte joaten dira. Ibai ertzeko sua, eta bertako berbena norbere begiz ikus asmoz.

Berandu batean etxeratzen gara egun horretan, hurrengo egunean ez baitugu goiz jaiki behar. Begiak irekitzearekin batera, eguraldi ona tarteko, toalla eta bainujantzia hartu eta hondartzarako bidea hartzen dugu, urteko lehenengo bainuarekin amets egiten. Eta hara non, herriko plazara iritsi eta bezperan sua zegoen tokian zuhaitz luze bat aurkitzen dugun, goiko puntan ikurrina duela!!

Hondartzarako plana berandutxoagorako utzi eta zuhaitzean gora igotzen ahalegintzen gara. Behin eta berriz, gure eskuekin eta oinutsik bernizatutako enbor luzean irrist eginez, ikurrinara

iritsi nahian...

Garai hartan, ez geneukan edo nuen behinik behin San Juan egunez egiten zen su horren inguruko beste berririk. Aspaldiko esatera da "urteak ez direla alperrik pasatzen"... Eta pixkanaka, hasierako su horren inguruan datuak jasotzen hasten zara, zer dela eta egiten den, zergatik jartzen den San Juan suaren ondorengo egunean zuhaitz luze eta fin bat herriko enparantzan...

Urte luzez, gure herriko historiaren lekuko-tza isila gordetzen du urtero-urtero berpizten den gar horrek. Antzina udako solstizioa zena kristautasunak bereganatu zuen. Suaren gainetik salto eginez, norberaren bizitzatik kanporatu nahi ziren gauza guztiak erretzeko bertutea ei zuen su hark.

Urte luzez, gure herriko historiaren lekuko-tza isila gordetzen du urtero-urtero berpizten den gar horrek. Antzina udako solstizioa zena kristautasunak bereganatu zuen. Suaren gainetik salto eginez, norberaren bizitzatik kanporatu nahi ziren gauza guztiak erretzeko bertutea ei zuen su hark.

Arbola luze eta mehar hori lizar gazte eta tente bat dugu, euskaldunen mundu imaginarioan oso presente dagoena, hain zuzen ere. Txabolatxo askoren inguruan aurkitzen dugu, bertan bizi diren bizidunak babesteko ekaitzen aurka, luizien aurka...

Beraz, herritar guztiok gonbidatzen zaituztet, San Juan suaren gainetik salto egitera, akaso, lagunduko baitu gainean daramagun zenbait zama arintzen... Ni behintzat probatu gabe ez noa gertazera!!





Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

Zenbat ekintza M7 galdeketa aurkeztu genuenetik!

Guztira 1.000 bozka izan dira Deban, %25,20ko parte-hartzea. Gustura daude antolatzaileak

Erabakitze eskubidearen alde ugariak izan dira herrian antolatu diren ekimenak: batzuk galdeketa egiteko ezinbesteko diru-laguntza lortzekoak (rifak), eta orri hauetatik eskerrak eman nahi dizkiegu hau aurrera atera ahal izateko lagundu gaituzten taberna guztiei; eta gainontzekoak, galdeketa egunari begira, ilusioz eta herriko talde desberdinekin elkarlanean antolatu ditugunak.

Giro ederra egon zen erabakitzeko eskubidearen alde plazan, Ainhoarekin batera antolatutako Zumba saioan. Jazz doinuz une oso ederrak sortu arazi zizkiguten Josu eta Iban musikariak; hau Debarockekin batera antolatu genuen. Artelanek ere erabakitzeko eskubidearen alde izan dute lekua Agirre jauregian egindako erakusketan. Bakoitzak zerbait desberdina iradokitzen zuen... ederrak denak. I. erabakitze eskubidearen aldeko pala txapelketa azkar mistoa hurrena. Herriko emakume palazaleen eta euskal jolasen artean. Giro bikaina izan zen nagusi, 10 minutuko partida, 10 bikote... eta azkenean: Itziar Larrinaga eta Manez Beitia Txapeldun.

M-6. 12:00-14:30 bitartean, I. erabakitze eskubidearen aldeko pintxo lehiaketa. Epaile, herritarrek. Eskertzekoa izan da tabernek erakutsitako jarrera eta prestutasuna gaurkoan ere.

15:00, hautetsontziak jaso eta bozkak kontatzera. Arratsaldeko trikipoteoan, Calbeton Jatetxeari emango diogu saria, "Olentzeroren zakua" pintxoagatik. Giro ederra egon da trikipoteoan, hori da hori infernuko hauspoari hautsa kentzea eta panderoa astintzea!!! Ederrak dira benetan txapelketetarako sari gisa emateko Jose Felix Igartuak marraztutako koadroak (eskerrik asko zuri ere). Inork hartuko al du erronka, bai II. pala nahiz pintxo lehiaketak antolatzekoak?

Nekeak gaina hartu digu eta lotara goaz.

Erlojuari begiratu eta 05/07 jartzen du alde batean. Iritsi da eguna. Gaur da **M7**, maiatzak 7. Galdeketa eguna Deban, Itziarren, eta Euskal Herriko beste hainbat tokitan.

Goizeko 7:30ak markatzen ditu erlojuak, eta jada nabari da mugimendua Foruen Plazan. Inguruko etxeek itzal egiten dute, eta eguzki izpiek ez dute oraindik bete-betean jotzen. Goizeko freskura nabari da. "Joango da giroa berotzen, jendearen animoak bezala!" dio batek, gogotsu. Eguraldi ederra dago iragarria.

Mahaiak, aulkiak, hautetsontziak, bozkak, gutun-azalak, ordenagailuak... guztia prestatzen dabil bolondres taldea, atsedetik hartu gabe: goizeko 9etarako guztiak prest egon behar du! Aurretik, 8etan, mahaiako lehendakari eta bokalak izango direnak bildu dira azken kezkek eta argitzeko, eta mahaiak osatzeko. Horretan ari direla, Iparraldetik etorri diren ikuskatzaileak iritsi dira. Galdeketa berme guztiekin egingen dela ziurtatuko dute.

**Deban ere ERABAKI DEGU
ESKERRIK ASKO!**

Partaidetza: %25,20

Nahi al duzu egungo Euskal Herriaren estatus politikoa aldatu?

BAI: 942 EZ: 32 Boto baliogabeak: 4 Boto txuriak: 22

Eta hala balitz, nahi duzu Euskal Estatu independente bat?

BAI: 848 EZ: 87 Boto baliogabeak: 8 Boto txuriak: 57




Guztia behar bezala antolatuta dagoela ziurtatu ondoren, hautetsontziak ireki dira. 9ak dira, eta jada bada jendea bozkatzeko zain, izan arkupeetako mahaietan edota plazan bertan jarritakoetan. "Erabakitzera goaz!"-etik, "Erabakitzen ari gara!"-ra igaro gara. Hasi da galdeketa!

Eguzki izpiek plaza berotu ahala, badoa jendea hurbiltzen, eta hautetsontziak betetzen. Musikaz lagunduta, azkar doa goiza, eta eguerdirako plaza jendez gainezka dago. Ordu batean parte-hartzearen lehen datuak eman dituzte; Deban

%15,12ak eman du bozka.

Bazkalordua gerturatuz batera, txanda aldaketa dugu mahaietan. Goizean lehendakari eta bokal bezala ibili direnak, badoaz bazkaltzera. Arratsaldean haien ordezkari egongo direnek hartu dute hauen lekua.

Iritsi dira 15:00ak, eta parte-hartzea %20,16koa da Deban. Gure herriko ohi-turak ezagututa, ez dugu jende askorik espero hurrengo orduetan. Eguraldi

honekin, batek baino gehiagok txikiteoa luzatu du, eta 16:00etatik 17:30-18:00ak arte jende gutxi kalean. Horren adierazgarri 18:00etako datuak, %22,40ko parte-hartzea.

Azken txanpan sartu gara, eta gero eta gazte gehiago dator bozkatzera. Agertu dira eguerdian, eta, arratsaldean ere bada-toz. Azken olatua!

Amaitu da. Arratsaldeko 8ak puntuan. Azken bozka. Itxi dira hautetsontziak eta mahaiak. Eta hasi da bozken kontaketa. Deban guztira 1.000 bozka. %25,20ko parte-hartzea. Gustura daude antolatzaileak. Datu ona irizten diote halako galdeketa batentzat, erakusten baitu herritarren zati handi batek badue-la erabakitzeko eskubidea egikaritzeko nahia eta borondatea.

Mila esker parte hartu zenuten guztioi! Eta bereziki antolatzen lagundu zeniguten guztioi!



Euskaldunen eta katalanen arteko truke kulturala Reusen

Apirilaren 7, 8 eta 9an Reusen izandako elkarketak arrakasta handia izan du herritarren artean

Reuseko Euskal Komisioak euskal kultura eta kultura katalana garatzea du helburu, bietan bizi dituzten prozesu politikoak aurrera eramanez eta jendea honen guztiaren jakinaren gainean mantenduz. Asteburu hau antolatzen zazpi hilabete pasa ondoren, apirilko lehenengoan Reusen elkartu ziren debarrak eta reustarrak.

Ikurrinak airean ostiral gauean. Asteburu bizitzeko gozoz iritsi ziren debarrak Reusera. Pare bat garagardo, gela handi batean esterillak eta zakuak zabaldu eta atsedean hartzeko ordua iritsi zen 8 orduko autobus bidaiaren ondoren.

Larunbatean, goizean goiz, Reus hiria eta bere historia ezagutzeko aukera izan genuen. Euskal Komisioko kideek antolatu zuten asteburu, ekintza bat bestearen atzetik planteatuz. Castellars-ak edo giza-dorreak izan ziren goizeko protagonista. Euskaldunak Kataluniako kulturaren barneratu eta rolak aldatu genituen giza-dorreak sortuz. Korrika inprobisatu bat antolatu zuten trikitixak eta panderoak giroa alaitzen zuten bitartean, eta guztion ahotan euskal oihiak zeudelarik, trikipoteoari hasiera eman genion.

Kaleak euskal musikaz apainduta, bazkari herrikoira hurbildu ginen. 300 eserleku reustar eta debarrentzat. Bazkari azkarrak, patxarara eta kantaldi egokiak. Euskal kantak katalanekin txandakatuz, letrak eskuan, 300ok batera abestu genuen, nekatu arte. Irrintziak, barre algarak, gitarrak eta txaloek Reuseko kaleak hartu zituzten, euskal dantzei hasiera eman aurretik. Euskal dantzeekin batera, Castellars ekitaldiak eman ziren bi kulturen arteko nahasketa emanez. Honekin batera, egunari amaiera emateko, Debako taldeek kontzertuak eskaini zituzten bertan: Skaleak, Vota K, San Rokers... inguruko gazte guztiak festara animatuz.

Neke aurpegiz bete zen autobusa igandean. Astebukaera luze eta bizia izan zen, ekintza asko eta parranda giro handiz



betea. Loak hartu baino lehen, guztiek berdina zioten: "Izugarrria izan da, hurrengo urtean bueltan gatoz". Eta nola ez, antolatzailak leher eginda egon arren, oso pozik zeuden beraien lanarekin, merezi izan baitzuen. Aitor Bedialaunetak, Reuseko Euskal Komisioko partaide eta bertako ikasle debarrek, harro zioen: "Hasieratik genekien dena ondo irtengo zela, baina beti izaten ditugu zalantzak. Azkenean, espero bezala atera da dena eta oso pozik gaude. Beste hainbat ideia ditugu buruan, eta guztiak aurrera eramatea gustatuko litzai-guke mugimendu politiko honekin jarraitzeko".

*Maria Aizpurua Ayastuy
(Bartzelonatik bidalitako kolaborazioa)*



Maiatzak 26, ostirala:
Aldats pilotalekuan,
22:30ean (5 euro).

"PREST GAUDE"

Lakrikun Antzerki Taldea.
Azpeitia.
Elena, Arantxa eta Jaione.
Hiru emakume, lanbidez
garbitzaile. Grebara joatea
erabaki dute, hainbat kon-
tuk bultzatuta. Hirurak
elkartu eta solasari ekingo
diote...



Maiatzak 27, larunbata:
Aldats pilotalekuan,
22:30ean (6 euro).

"A. M. CLASSICS". Bederen
Antzerki Taldea. Zarautz.
M orkestra zuzendaria eta
pianista ezaguna da, profesio-
nal bikaina eta bere jarduna
era serio eta zorrotzean era-
maten duena.
A antzokiko tramoia da.
Aktore izan nahi zuen, artista.
Bere antzokian egiten diren
emaldietan berak parte
hartzen duela amesten du...



Maiatzak 28, igandea:
Kale Antzerkia,
13:00etan.

"ETSITA". Trapu
Zaharrak taldea. Donostia.
Hirurogei bat urte inguru-
ko senar-emazte bikotea
ahal duen moduan bizi da
seme bakarrarekin (Koldo,
31 urtekoa). Semeak ez du
inoiz lanik egin. Egoera
horrek bultzatzen ditu
bere gurasoak kale gorriara,
euren egoera salatzerako.



Maiatzak 30, asteartea
GOAZ Aretoan, 10:30ean eta
11:30ean.

"AMAMAREN ALBONDIGAK"

Aizarnako Eskola Antzerkia.
Aizarna.
Anttonek afari astuna egin
du. Izan ere, amamak egin-
dako albondigak oso gustu-
ko ditu eta hamar behintzat
jan ditu. Konturatu orduko,
etxe misterioitsu batera gon-
bidatuko dute eta egoera
gero eta beldurgarriagoa
bihurtuko zaio...



**Maiatzaren 26tik ekainaren
4a bitarte ospatuko da, GOAZ
Antzerki Taldearen eskutik**

Ene! Iritsi zaigu dagoeneko maiatza ate-joka!!
Dagoeneko pasa da urtebete, azkenengoz Deban
Antzerki Astea izan genuenetik. Iaz zenbaki potoloa
bete genuen, 30 urte alajaina!!! Ez da gutxi!! Erraz esa-
ten da, ba!! Baina guk aurrera begira jarraitzen dugu!
Hogeita hamaikagarren udaberria, herrian antzer-
kia eta bereziki euskarazko antzerkia taularatzen.

Lehenengo urte haietatik gauzak asko alda-
tu dira, bai antzerki inguruan eta baita antzerki
zaletasunaren inguruan ere: urte askoan gure
gotorleku izan genuen Zubeltzu Zinema historiara

Badator XXXI. Antzerki Astea




Ekainak 2, ostirala:

Aldats pilotalekuan,
22:30ean (5 euro).

"EZ HEMENGO EZ HANGO".

Orratz Antzerki Taldea.
Lezo.

Gerrako haur izandako aitona eta haurarekin parkean egoten den emakumea; pisu berean bizi diren hiru gazte langile; bazterrak nahastera datorren bizilaguna; adineko emakume bat eta haren zaintzaile hego-amerikarra... guztiak dira orain herri bereko auzotar, guztiak inongo..




Ekainak 3, larunbata:

Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 22:30ean (6 euro).

"HOZKAILUA".

Artedrama Antzerki Taldea. Donostia. Maite eta Karlos herririk herri dabilta hozkailu zahar batekin. Hozkailuaren barruan, garagardo lata eta hestekien artean, Londonetik dakarten Jimmy lagunaren hilotza daramate, hari zin egin baitzioten bere jaioterrian lur emango ziotela..



Ekainak 4, igandea:

Aldats pilotalekuan,
12:30ean (3 euro).

"HIRU IPUIN".

Zurriolako Antzerki Taldea. Donostia. Muxugorrik liburutegira joateko konbentzituko du Tomax, han antzerkiak sortuko dituztelako ipuinekin. Beraz, euren erara antzeztuko dituzte "Txanogorritxo", "Hiru txerrixoak" eta "Hamelingo txirularia". Barre egin eta ondo pasatzeko ikuskizuna.

XXXI. Antzerki Astea

Udaberriarekin Dator eguzkia GOAZ Taldeak du Lana ta ilusioa ta debar guztientzat urteroko zita.

XXXI. Antzerki Astea Dator ate joka Sar gaitezen barrura Denok elkartuta Antzerkiez goatzeko Garaia dugu ta.

pasa da, antzerkiarekiko zaletasunak ere gorabehera nahikotxo izan ditu urte hauetan guztietan zehar.

Baina, hala ere, guk ez dugu etsiko! Lehenengo egunean izan genuen indar eta ilusio berarekin jarraitzen dugu. Denon artean antzerkiari merezi duen lekua eginez gure herrian, eta antzerkizale diren horien guztien antzerki-egarria asetu nahian!!

Horretarako, Euskal Herriko txoko guztietatik etorriko zaizkigu aurten antzerki taldeak:

Azpeititik, Donostiatik, Aizarnatik, Lezotik... Eta azken urteetako ohiturari jarraituz, publiko guztiak kontuan hartu ditugu egitaraua osatzerakoan, baita mota guztietako ikuskizunak ere (kale antzerkia, haurrentzako emanaldia, helduei zuzenduriko obrak...)!

Beraz, zinez eta bihotz-bihotzetik gonbidatzen zaituztegu gure Antzerki Astean murgildu eta goatzera!!

Zuen zain egongo gara aurten ere eta esku zabalik hartuko zaituztegu!!

Deban jokatu zen Euskaltel Euskal Surf Zirkuituaren lehen atala

Euskal Herriko Surf Zirkuituaren lehenengo atala Deban jokatu zen apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean eta **Kalani da Silva** eta **Ainara Aimat** surfleriak nagusitu ziren.

Da Silvak Hodei Collazoren aurka jokatu zuen finala. Roberto Letemendiarentzat izan zen hirugarren postua eta Imanol Yeregi (iazko txapel-duna) final laurdenetan gelditu zen.

Nesken kategorian, berriz, Ainara Aimatek Garazi Sanchez (iazko zirkuituko txapelduna) bigarren postuan utzi zuen. Janire Gonzalez-Etxebarri sailkatu zen hirugarren postuan, eta Iara Dominguez laugarrenean.

Irailaren 23-24an Sopelan (Arrietarra) jokatu da Euskal Herriko Surf Federazioak antolatutako zirkuitu honen bigarren atala.



Indoor Arrauna: kiroldegiko eskaintza berria

Areto edo Indoor Arrauna deritzon kirol jarduera eskaintzen hasi da Debako Kiroldegia. Maiatzeko lehen hiru asteetan sustapen ikastaroak antolatu ditu, herritarrek eskaintza berria zertan oinarritzen den ikus dezaten, eta orain izen-ematea abiatu du.

Kiroldegiko arduradunek azaldu dutenez, ohiko ur arraunketa tradizionalan oinarritzen da Indoor Arrauna, "eta teknologiari esker ekarri ahal izan dugu lehorrera, 16Concept2 makinez jantziriko areto batera, hain zuzen ere".

"Ariketarik onentsuenetarikotzat hartua da arrauna, ez baitago inpakturik gabeko mugimendu zabalez hainbeste gihar talde lantzen dituen beste jarduerarik. Indoor Arraunean lantzen diren gihar talde anitzen artean, jarrera-tzaileak eta orekatzaileak nabarmen-tzen dira, hau da, bizkar osasuntsu bat



deritzona", nabarmendu dute.

Adin guztietako jendeari zuzendua egongo dira kirol saioak (40 minutukoak), norberaren egoera fisiko eta adinari egokituak eta doinu ezberdinen erritmora diseinatuak. Behin behineko ordutegia zehaztua dago, baina izen-ematearen arabera alda daitekeela ohartarazi dute arduradunek.

Informazio gehiagorako edota izena emateko, pasa kiroldegitik, idatzi kiroldegia@deba.eus helbidera edo deitu 943192262 telefono zenbakira.

Iñigo Atxa, Gipuzkoako txapeldun urpeko arrantzan

Iñigo Atxa Bediauneta debarra da Gipuzkoako txapelduna urpeko arrantzan. Garaipena pasa den maiatzaren 7an (igandea) Orioko portuan eta inguruetan jokaturako txapelketan lortu zuen. Lau orduz aritu ziren lehian parte-hartzaileak eta Atxa nagusitu zen, 44.057 punturekin.

Real Sociedad klubeko kide da Debako urpeko arrantzalea. Urteak daramatza kirol modalitate honetan lehiatzen eta ez da azkenaldian jaso duen sari bakarra.

Orion lortutako garaipen berri honek Euskadiko txapelketarako pasea eman dio.

Mireia Arrillaga eta Pello Osoro nagusitu dira Deba Orbea Xtreme Triatloian

Bederatzigarren edizioa izan du aurten Deba Orbea Xtreme Triatloiak. Joan den maiatzaren 7an (igandea) burutu zen lehia eta esprint modalitatean jokatu zen -parte-hartzaileek 750 metro egin behar izan zituzten igerian, 25 kilometro txirrinduan eta 5,2 km. korrika-. Guztira 253 kirolarik eman zuten proban hartzeko izena, baina horietako 226k lortu zuten triatloia amaitzea.

Sailkapen nagusian, Garraitz taldeko Mireia Arrillaga lekeitiarrak lortu zuen lehen postua emakumezkoetan (1:23:35ko denborarekin) eta Pello Osoro eibartarra -Delteco taldekoa- izan zen azkarrena gizonezkoetan (1:11:26ko denborarekin).



“Ekaitzaren zipriztinak” kronika liburua aurkeztu du Miren Garatek, Tene Mujika beka tarteko

“Krisia esaten zaion horren” errepasoa egin du Miren Garate kazetari azpeitiarrak aurkeztu berri duen “Ekaitzaren zipriztinak” liburuan. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika bekaren fruitua da liburua. Iaz jaso zuen beka azpeitiarrak, eta urtebete izan du lana osatzeko.

“Krisia esaten zaion horren errepasoa egin nahi izan dut –azaldu zuen egileak aurkezpenean-. Ez dut sakondu krisiaren zergatietan, ez dudalako horretarako erantzunik. Krisia amaitu ote den ere ez dakit, ez naiz ekonomista, ez dakit krisiak soluziorik duen ere... Ekaitzak edo krisi esan zaion horrek gizarteari nola eragin dion, ondorioetan zentratu naiz ni, gertuko gaiak interesatzen zaizkit eta”.

Liburua osatzeko, hogeitaz hamar hitz aukeratu ditu Garatek, alfabetoaren arabera ordenatuta, beste horrenbeste gai jorratzeko: atzerrira joandakoak; berdintasunean krisiak nola eragin duen; dibertsitate falta edo zenbait kolektibok lan merkatuan sartzeko dituzten zailtasunak; ekintzaileria; finantzei lotutako engainuak; gazteen arazoak; hartzekodunen konkurtsoak eta enplegua erregulatzeko espedienteak; ikerketa eta garapenaren egoera; janari bankuak; kontsumoa; lanuzteak; mobbing-a; nekazaritzaren etorkizuna; osasun arazoak; prekaritate; Stop Kaleratzeak elkarte; teknologia aurrerapenek ekar dezaketena; unibertsitate; xenofobia jarrerak; zahartzarua eta



pentsioak. Gai horietako bakoitzean, protagonista batek lehen pertsona eskaintzen du bere lekukotasuna, eta ondoren kazetariaren erreportaje landua dator.

Miren Garatek apirilaren 26an aurkeztu zuen bere lana Debako Kultur Elkartearen, Liburuaren Egunaren bueltan aurrean antolatutako egitarauaren baitan. Toki berean, baina egun bat beranduago, Rafa Bravo idazlearen azken argitalpena izan zen protagonista: “Cuerpo y alba” poesia liburua aurkeztu zuen areto nagusian, ekitaldi jendetsu batean.

Bi liburuak salgai daude jadanik liburu-dendetan.

Udalak Santa Katalina eta haren lursailak eskuratu ditu

Debako Udalak Santa Katalina ermita eta haren lursailak osatzen duten 63.468 metro karratuko lur-eremua erosi du –bertan daude basiliza eta Ermita Berri base-riaren horma zaharrak-. Lursailaren erosketa apirilaren 25ean gauzatu zen, 30.000 euroan, eta Udalak eskerrak eman zizkion Alfonso del Valle Lersundiri, gaur artean basiliza eta haren lursailen jabea izan denari, “urte hauetan guztietan azaldu duen laguntza eta borondate onagatik”.



Mobilizazioak “Lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki!” lelopean

Egungo hezkuntza publikoaren egoera “larria” salatu nahian, maiatzaren 16an eta 23an LAB, ELA eta STEILAS sindikatuek egindako greba deialdiarekin bat egin zuten berriz ere EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan eta haurreskoletan.

Egoera hobetzeko ondorengo eskaerak dituzte: hezkuntza inbertsioa handitzea; pertsonala handitzea, gutxienez 2.000 langile gehiago; batez besteko ia %40ko behin-behinekotasuna %6ra murriztea; ikasle ratioak %10 murriztea eta LOMCE eta Heziberri bertan behera uztea, besteren artean.



Berriketan Gaztea

2017ko maiatza
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua

4. mailako ikasleak Alemanian izan dira ikasbidaietan

Urtero bezala, 4. mailakoek ikasbidaiak egin zuten apirilaren 3tik apirilaren 8ra arte. Bidaia hau burutzeko urtean zehar hainbat ekintza egin zituzten, esate baterako: txosnak jarri, Kilometroak jaialdira joateko autobusa antolatu, institutuan asteazken eta ostiraletan ogitartekoak saldu, kamiseta eta jertseak saldu, gabonetan etxez etxe abesten ibili, moda desfilea egin... Azkenean lortu beharreko dirua lortu zuten eta Alemaniara joan ziren. Irakasle batzuen laguntza izan zuten: Enrike Izagirre, Nerea Aranburu, Itziar Goñi eta Gorka Ostolaza.

Apirilaren 3an, lehen egunean, arratsaldeko 15:00etan irten ziren Debatik eta gaua autobusean bidaiatzen egin ostean, Oihan Beltzera iritsi ziren.

Bigarren egunean, apirilaren 4an, lehen orduan Estrasburgo, Alsaziako hiriburua, bisitatu zuten eta bertan, denbora librean izan zuten gosaltzeko. Jarraian, Petite France izeneko auzo ederra eta Notre Dame katedrala ikusi zituzten. Bisita amaitzean, denbora librean eduki zuten bazkaltzeko. Bazkaldu ostean, Hemizikloa ikusi zuten eta segidan hotelera bueltatu ziren.


Hirugarren egunean, apirilaren 5ean, gosalduta eta gero, Triberg-era abiatu ziren eta bertan Alemaniako ur jauzurik altuenetara igo ziren. Bisitaldia bukatu ondoren, Schonach-era hurbildu ziren eskualdeko Cucut erloju handiena ikustera. Gero, hotelera bueltatu ziren bazkaltzera. Arratsaldean Titisee lakura joan ziren –lakuan itsasontzian ibili ziren–. Ondoren, hotelera itzuli ziren afaltzera eta lo egitera.



Laugarren egunean, apirilaren 6an, gosalduta eta jarraian, Freiburg (Europako hiriburua politenetako bat) bisitatzera joan ziren. Bertan, kolore eta giro handiko kaleetan ibili ziren eta katedral gotiko bat ikusi zuten. Plazan, produktu tradizionalak saltzen dituzten merkaturak ikusi zuten. XVI. mendeko udaletxe zaharra eta udaletxe berria ere ikusi zituzten. Arratsaldean, Badeparadies ur parkera joan ziren eta, egonaldi hau amaitutakoan, hotelera bueltatu ziren eta azken gaua pasatu zuten Oihan Beltzean.

Bosgarren egunean, apirilaren 7an, gosalduta ondoren, mailetan autobusean sartu eta Alemaniako atrakzio parke handienetara joan ziren, Europaparkera. Bazkaldu ondoren, autobusa hartu zuten Euskal Herrira bueltatzeko. Gaua bidaiatzen eman zuten.

Apirilaren 8an, larunbat goizean, iritsi ziren Debara eta irakasleak agurtu ondoren, ikasleak etxera joan ziren. Oso zintzo ibili ziren eta oso ondo pasatu zuten bidaietan. Datorren urteko bidaiarietara ere berdin pasatzea espero dugu.





Iosu Valenciano eta Jon Leiro

“Euskadiko txapelketa irabazi genuen”

Iosu Valenciano eta Jon Leiro elkarrizketatu ditugu oraingoan. Errugbian aritzen dira biak eta kirol horren inguruko galderak egin dizkiegu. Hona hemen guk egingako galderak eta beraiek emandako erantzunak:

Zergatik aukeratu zenuten errugbia?

Jon: Kirola egitea gustatzen zaidalako.

Iosu: Nire lagun batek gomendatu zidan kirol hau praktikatzea.

Zenbat urterekin hasi zineten?

Jon: Hamabost urterekin hasi nintzen.

Iosu: Hamahiru urterekin hasi nintzen.

Honez gain, beste kirolen bat egiten duzue?

Jon: Ez, ez dut egiten.

Iosu: Errekortari lanetan ibiltzen naiz.

**Astean zenbat aldiz entrenatzen zarete?
Zein egunetan?**

Jon eta Iosu: Astean bi egunetan izaten dira entrenamenduak, astearte eta ostegunetan.

**Taldearekin zer moduz konpontzen zarete?
Eta entrenatzailearekin?**

Jon eta Iosu: Taldearekin oso ondo konpon-

tzen gara, baita entrenatzailearekin ere.

Zein taldetan jokatzen duzue?

Jon eta Iosu: Zarauzko errugbi taldean.

Zein postutan jokatzen duzue?

Jon eta Iosu: “Tres cuartosen” jokatzen dugu biok.

Partida bakoitzak zenbat irauten du? Eta atsedenaldiak?

Jon eta Iosu: Partidak 70 minutu eta atsedenaldiak 5 minutu.

Txapelketetan parte hartzen duzue?

Jon eta Iosu: Bai, hainbat txapelketatan parte hartu dugu.

Irabazi al duzue koparen bat?

Jon eta Iosu: Bai, Euskadiko txapelketa irabazi genuen.

Inkesta

Janaria: gustuak, ohiturak, dieta...

Maiatzeko ale honetan janariari buruzko inkesta egin diegu Mendata ikastetxeko ikasleei: jateko ohiturak, dieta mota, euren gustuak... izan ditugu hizpide:

- 1.- Zer janari gustatzen zaizu gehien?
- 2.- Eta gutxien?
- 3.- Bollería gustatzen al zaizu?
- 4.- Fruta eta barazkiak jaten al dituzu?
- 5.- Gozokiak zein egunetan jaten dituzu?
- 6.- Dieta orekatu bat jarraitzen al duzu?
- 7.- Jan ostean hortzak garbitzen al dituzu?
- 8.- Zer nahiago duzu, arraina ala haragia?



Paula del Olmo

- 1.- Haragia, xerra batez ere.
- 2.- Barazkiak ez zaizkit gustatzen.
- 3.- Bai, gehiegi.
- 4.- Bai, derrigortuta.
- 5.- Astebukaeran.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Haragia.



Elene Aizpurua

- 1.- Haragia.
- 2.- Barazkiak.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai.
- 5.- Ostiraletan eta asteburuetan.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Haragia.




Andrew Irureta

- 1.- Txuleta.
- 2.- San Jakobo.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai, asko.
- 5.- Asteburuetan.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Biak gustatzen zaizkit.

Denbora-Pasak

Aurkitu bost desberdintasunak



laguntzaileak:

babesleak:



Debako Udala

Unax Arrieta



- 1.- Pizza.
- 2.- Legatza.
- 3.- Txokolate gabea.
- 4.- Bai.
- 5.- Asteburuetan.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Haragia.

Olatz Matias




- 1.- Pizza.
- 2.- Dilistak eta garbantzuak.
- 3.- Bai, asko, gehiegi.
- 4.- Bai.
- 5.- Asteburuetan.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Haragia.

Joseba Sanchez



- 1.- Albondigak eta pizza.
- 2.- Garbantzuak.
- 3.- Ez, ezer.
- 4.- Bai.
- 5.- Asteburuetan, baina gutxitan.
- 6.- Noski.
- 7.- Bai, noski.
- 8.- Arraina.

Pablo Ren



- 1.- Ez dakit.
- 2.- Izokin ketua.
- 3.- Bai.
- 4.- Bai.
- 5.- Gogoia daukadanean.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Biak.

Jon Loidi




- 1.- Fideua.
- 2.- Barazkiak purean.
- 3.- Ez.
- 4.- Bai.
- 5.- Ostiraletan eta asteburuetan.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.
- 8.- Haragia.

EGILEAK: Maite Ramos, Irune Ruiz, Jone Gomez eta Ibai Bernal

Maraka eta txirula hizketan



Zer animalia iritsiko da neskarengana?



Prentsa tallerria 2016-2017

Urko Azkoitia, Maria Perez, Maite Ramos, Nerea Sanz, Intza Sudupe, Eneko Arriola, Jone Gomez, Janire Lopetegi, Eider Perez, Irune Ruiz, Maider Almortza, Ibai Bernal

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

MAIATZAK 25-28

-Asentzio jaiak Endoian. Egitarau berezia iragarri dute endoiarrek. **

MAIATZAK 26, OSTIRALA

-XXXI. Antzerki Astea abiatuko da -ekainaren 4a arte iraungo du-. (Ikus 10-11 orrialdeak).

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, Foruen plazan.

MAIATZAK 27, LARUNBATA

-6:00. **Erromesaldia Lourdesera.**

-8:30. **Mendi irteera** (bi egunez), Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

-8:30. **Geoparkeko kostaldearen garbiketa auzolanean,** Deba eta Zumaia arteko itsaslabarretan (autobusa izango da). Aurrez eman behar da izena.

-Goizez, **merkatu solidarioa** udaletxeko arkupeetan.

-**Zurrumbilo Eguna.** Egun osoko egitaraua izango du.

MAIATZAK 28, IGANDEA

-Xoxote Eguna.

-Goizez, **merkatu solidarioa** udaletxeko arkupeetan.

-10:30. **Irteera gidatua: Lastur familiar.** Informazioa eta izen-ematea: www.geoparkea.com.

MAIATZAK 31, ASTEAZKENA

-19:00. **Hitzaldia: "Praileaitz"** (gaztelaniaz). Xabier Peñalver arkeologoa arituko da hizlari, Mutrikuko Zabiela Kultur Etxean. Europako Geoparkeen Astearen baitan antolatu da hitzordua.

** "Ederra dago" lelopean, udaberri-udako kultur egitarau oparora antolatu du Itziarko Auzo Udalak, eragile zein auzotar ezberdinekin elkarlanean. Izar berdeekin bereizi ditugu ekimen horietako batzuk.

EKAINAK 2, OSTIRALA

-17:30. **"Labarretako izakiak"** marrazki lehiaketako sari banaketa. Turismo bulegoan.

EKAINAK 3, LARUNBATA

-Itziarren eskola berri eta propioa bultzatzeko jaia, Itziarko plazan. Egun osoko egitaraua antolatu du Lizarbe Guraso Elkarteak. **

EKAINAK 9-26

-Arte Eskolak antolatutako **erakusketa** izango da ikusgai Agirre jauregiko erakusketa gelan.

EKAINAK 10, LARUNBATA

-22:00. **Kulunka.** Kurtso amaierako jaialdia, Aldats pilotalekuan.

EKAINAK 11, IGANDEA

-**Andutz Eguna.** Sari banaketa (11:00etan), erromeria. **

EKAINAK 22, OSTEAGUNA

-19:30. **Hitzaldia: "Udako solstizioa".** Aritza Bergara arituko da hizlari, Lasturko Aterpetxean. **

EKAINAK 23, OSTIRALA

-22:00. **San Juan Bezpera.** Urtero bezala, sua piztuko da Deban, Itziarren eta Lasturren.

EKAINAK 24, LARUNBATA

-11:00. **San Juan eguna,** Santa Katalinan.

-**X. Debako Itxasmila** (Mutriku-Deba zeharkaldia). Izen-ematea: www.saillkapenak.com.

"Komunikazioa eta gatazken ebazpena"

Mogel guraso elkarteak saio ezberdinak antolatzen ditu gurasoentzat eta ikasturtea amaitu aurretik "Komunikazioa eta gatazken ebazpena" izenburuko bi saio antolatu ditu. Lehen saioa maiatzaren 23an egin ostean, ekainaren 6rako (asteartea) deitu du bigarren saioa. Kultur elkartearen izango da, arratsaldeko 18:30ean.

Liburuak itzultzeko zerbitzu berria abian da Udal Liburutegian

Maileguan hartutako dokumentuak itzultzeko buzoia jarri da Ostolaza Udal Liburutegiaren sarreran. Bertan liburutegiko dokumentu guztiak -liburuak, DVD-ak nahiz CD-ak- edozein ordutan itzul daitezkeela jakinarazi dute liburutegiko arduradunek.

Matrikulazio epea zabalik Arte Eskolan eta Deba Musikalen

-**Debako Arte Eskolan** datorren irailean hasiko den ikasturterako matrikulazioa zabalik dago ekainaren 30era arte. Harlanketa, zurlanketa, zeramika, brontze galdaketa artistikoa edota grabatu kaligrafikoa bezalako espezialitateak landu daitezke bertan. Informazio gehiagorako: www.debarte.net / 943 19 18 04.

-Ekainaren 16an amaituko da 2017/2018 ikasturterako **Deba Musikalen** matrikulatzeko epea. Informazio gehiagorako: 943 19 20 16 (musikaeskola@deba.eus).



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **maiatzak 26, 27, 29,**
ekainak 5, 6, 7, 8.

Burgoa Zuazo:

ekainak 9, 10, 11, 19, 20, 21, 22.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 27 eta ekainak 3

BURGOA ZUAZO: ekainak 10 eta 17

9:30 - 13:00



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



English Academy
NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel. faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTARLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com


Lizaso Lersundi kalea, 21
Autozerbitzua Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berrietan aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383
berriekan@zuhatza.com


URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

EUSKAL OKELA
CARNÉ DE VILLANO DE CANTABRIA DEL PIRINEO
EUSKO LABEL


GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818




MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Deban Kolorez Blai Udalekuak



Bukatu da euskal udalekuetan izena emateko epea eta matrikulazioa arrakastatsua izan da aurten ere. Eskerrik asko!

Onartuen zerrenda ekainaren 5ean iragarriko dugu.

Dagoeneko Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldea buru-belarri dabil udalekuak prestatzen, gogotsu eta ilusioz.

*Mila esker beste urte batez gure ametsak posible egiten dituzuenoi!
Laster arte!*

